

Egun on guztioi,

Zatoz euskaltegira!

Horra hor, urtero-urtero, deiadar sendoa, iraila-urria aldi honetan gonbite gozoa egiten diguna euskara eta euskararen kulturaren partaide izateko. Deiadarra, gainera, Euskaltzaindiaren egoitzaatik doakizue, hain zuzen ere, euskararen egoitza honetatik, guztion egoitza den honetatik. Beste behin ere, HELDUEN ALFABETATZE ETA EUSKALDUNTZE lanetan buru-belarri dihardutenek, eta gizartearen eragileek, argi eta ozen aldarrikatzen dute euren zeregina, gizarte honetan funtsezkoa dena.

De nuevo aquí, para recordarle a la sociedad vasca, con un impulso renovado, la labor de enseñanza de los euskaltegis, esa red de centros que recorre Euskal Herria, invitándonos a hacernos partícipes del euskera y de la cultura vasca.

Krisi gorrian bizi gara. Nonahi ikusten ditugu eskasiak eta mentsak. Ez edukien, lanik gabekoen kopuruak hortxe daude. Zerbait egiteko garaia da eta horretan berresten da gaur gure konpromisoa eta erronka, egunero gauzatzen dena gure ikasgeletan. Hortxe eskaintzen zaio gizarteari zerbitzua, gizartea bera kulturaren ikuspegitik aberastu nahian.

La crisis económica en la que estamos no nos debe hacer olvidar que el euskera y la cultura vasca no son algo superfluo sino algo necesario en nuestra sociedad, un elemento significativo de nuestra convivencia, en el que todos participamos.

Zer esanik ez dago, gu guztiontzat euskaltegien lana da oinarrizko eta ezinbesteko, euskararen aitzinamendua ziurtatzeko eta bermatzeko. Hitz batez esateko, euskara bera garatzeko gizarte honetan.

Seamos conscientes de la importancia de la labor de los euskaltegis para la difusión de la normativización y la normalización del euskera y en la tarea de su proyección social.

Horrexegatik *Zatoz euskaltegira!* Oihukatuko dugu berriro eta gure inguruan albistea zabalduko. Etorri euskaltegira, bertan aurkituko baitituzu, Euskararekin batera, Kultura oso baten adierazpenak. Hizkuntza baten inguruak ezagutzea horixe baita, hain zuzen ere, berak eramaten duen ikuskera horren jabea egitea. Irribarre zein negar, neke eta pozak, haserre eta adiskidantzak, alaitasuna eta tristura... labur esanda, giza seme-alaba orori dagozkion sentimenduak eta horiek ere zure hizkuntzan, zure inguruko hizkuntzan, hur-hurrekoz duzun horretan jasoko dituzu. Halakoak nork bere hizkuntzan adieraztea liluragarria eta xarmagarria ere bada. Ikasi eta erabili, erabiliz ikasi, erabiltzeko ikasi... Horretan ditugu bidegile eta bidaide euskaltegiak.

Beraz zatoz euskaltegira!

Aprender una lengua, alfabetizarse en ella, es abrir una nueva ventana al mundo. Llorar o reír, divertirse o sufrir, son sentimientos del ser humano que una lengua, una nueva lengua, el euskera de tu entorno, de tu cuadrilla, de tus amigos, de tu trabajo, de tu aprendizaje, te van a proporcionar. Para ello, los euskaltegis son nuestros acompañantes en este camino personal y colectivo del euskera.

Esos vínculos, esta presencia y acompañamiento de y a los euskaltegis es lo que hoy queremos simbolizar aquí recordando a quienes en el quehacer diario del aula, en esa relación entre profesor-alumno, son los protagonistas del proceso de revitalización, de recuperación del euskera. Hoy muchos de ellos no están aquí con nosotros pero nuestro empeño está con ellos.

Buruz buruko zein baliabide berriak erabilita, hamaikatxo ikasle izango dira ikasturte honetan ere euskaltegietako ikasgeletan. Bihoakie eurei, mundu osoan zehar euskara irakasten eta ikasten edo euren burua alfabetatzen ari diren guztiei gure agurra, gure gogoia eta nahia.

Nuestro reconocimiento y agradecimiento. Nuestro ánimo a todos aquellos y aquellas que perseveren, a todos y todas que se acerquen a los euskaltegis, no sólo para aprender, sino sobre

todo a descubrir el mundo del euskera y de la cultura vasca. Un mundo apasionante. Una lengua actual y con futuro. Una lengua y una cultura que hacemos todos juntos, día a día.

Aurrera, bada, eta gogotsu jokatu dezagun euskararen alde.
Hortaz, esan dezagun guztiok batera:

Zatoz euskaltegira!

Andres Urrutia
euskaltzainburua
(2013-09-26)